



KARMEL

Irugarren Aroa

130'gn. zenbakia

3-4 - 1972

Zirristuak elizan?

Aurten, bagillaren 29'an, bederatzigarren Aita-Santutza urtea zala-ta, zerionak emoten joan yakozanai itzaldi gogor bat egin eutsen Paulo VI'garrenak; kardenalen eta jentearen aurrean zan. Gaurko munduaren egcerari begira zan bere itzaldia, ta ez eban oso argi ikusten, naiz-ta bere eritxiz, bai Elizarentzat, bai munduarentzat, etorkizun obe baten argi-aztarrenak dirdir egin.

Beste gauza askoren artean, itzok orten xiran bere agotik: «Zirristu batetik, inpernuko kea sartu dala esan leiteke, Jainkoaren Elizan». Berba latzak, gogorrak ziñez Aita Santu baten agotan; lenengo kardenalen aurrean itz egin eban orrela, ta gero jentearen aurrean, aita-turiko bagillaren 23'an eta 29'an.

Zirristu, arrakala edo tarteren batetik; bai, zerbait sartu da, egoki ez dana. Ba-da duda, zalantza, kezka, ezin-asea Eliza barruan be; guztion csotzen dogun kristau Eliza onetan, egon be. Eleiza Amari siñistu bea-rrean, ortik, edozein ertzetik yaterkuzan sasi-igarleai siñisten dautsegu; eguneroko ta izparringiak dakarrena ontzat artzen dogu, edo-ta sozial eragin bati, edczetariko alderdi bati goakioz egiazko biziaren giltza ete daukan itaunka. Ta Eleizea ez al da jabe ta maixu? Ezpaia, dudea sartu da bai gure barruetan, gure kontzientzietan. Eta argia sartu daiten zabalik egon bear leukien leioetatik sartu yaku.

Zientzitik, Jainkoagandik urrintzen ez daben egiak guri emoteko dagon jakintzatik, datorkigu duda au. Eta jakintzak ez gindukez Jainkoagandik aldendu bear, gero ta estuago Arekin alkartu baiño. Gaur edozer kritikatzan da, ta zientzilariak, mundu onen aunditasunaren aurrean geien burua makurtu bear leukienak, ori egin bearrean, onela itz dagie: «Ez dakit», «Ez dakigu», «Ezin geinke jakin». Onela, egia erakutsi bear leuken eskolea naste-toki biurtzen yaku, ukatze ta ezezko sustrai bakoena sarri eskintzen dauskuez; aurrerapena goratu, ta ondoren berori erasten da iraultzarik zentzunbako ta irmoenakaz. Ta ondorenez, aurretik irabazitako guztia ankaz-gora botaten da; gaur-eguneko jakituria, aurrera-egitea, kultura orren goi ipiñirik, antxiña batekora biurtzen gara.

Eleizan be sartua dogu olako duda-muda ta kezka bizia. Batikano'ko II'garren Batzar ostean, uste zan, beintzat, egun eguzkitsua agertuko zala Eliz-kondairarako. Baiña, bestera izan da: laino-egun bat etorri yaku, ekaitzez, illuntasunez, kezkaz eta egon-eziñez betea. Eku-menismua predikatzen dogu, ta geure inguruan dagozanakandik, gero ta urriñago aurkitzen gara. Osinzuloak atxurtzen alegintzen gara, estaltzen alegindu bearrean.

Ona Paulo VI'garrenaren itzak: «Izatez goitiko zerbaiten siñisten dogu, guztion Eliz-Batzarraren frutuak nastu ta itoteko mundura etorria; Eleizeak, barriro be bere kontzientzi osoa artzerakoan, poz-ereserkirik abestu ez egian etorria, atan be. Auxegaitik, baiña, oraintxe iñoiz baiño gogotsuago gura geunke bete Jainkoak Pedro'ri emondako egikizuna, anaiak fedean indartu ta biztu-aztekoa noski. Jaunak, lurrean bere ordeko diranai, naita duin-ezak izan, emon oi dautsezan ziurtasun-doi oneik artu-azo nai neuskizuez».

«Maitasun beroz daukaguz momentu ontan gogoan itxi gaituezan geure anai guztiak —diño Paulo VI'garrenak—; iges doaz asko, ta bateoz artutako fedea itxiaz; beste batzuk, bear bada, bateoa artu arren, egundo be ez dabe lortu kristau-deiaren kontzientzia jaristerik. Eurokana zuzendu gura geunkez, bai, egi-egitan geure eskuak, eta guztiai adierazo: biotza zabalik dagoala beti, atea erreza dala, geuk geure biotzean gaiñezka daukagun zorionaren erdikide egin nai ditugula, au da, Jainkoagazko artu-emon beroak emoten dauskun zorion aundiarena, onek ez dauku ezer kendu oi mundu onegaz daukaguzan goraberetatik».